

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA EUSKAL MODA GUNEA 2019

I. DEIALDIA

I.1 XEDEA

Tokiko artisten, artisauen, diseinatzaileen talentuari, edo markei, ikusgarritasuna emateko helburuz, FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAren asmoa da Cristóbal Balenciaga Museoan –museoaren eremu komertzialaren barruan– gune bat gaitzea, sortzaile horien bilduma propioetako produktuak erakusteko eta gordailutan saltzeko aukera emango duena.

Era horretan, museora bertaratzen den publikoak, nazioarteko profila duen publikoak, diseinuaren eta modaren fenomenoarekiko sentsibilitate-maila handikoak, aukera izango du tokiko sortzaileen produktuak –hautatuak izan diren haien proposamenen artean– ezagutzeko eta, hala badagokio, erosteko.

Horretarako, deialdi bat zabalduko da, eta, horren bitartez, hainbat proposamen hautatuko dira; hautatutako proposamen guztiak batera egongo dira horretarako prestatuko erakusketa-merkataritza eremuan, 6 hilabetez gutxi gorabehera, 2019ko ekainetik abendura.

I.2 ESKATZAILEAK

Eskatzaileek –pertsone fisiko edo juridikoek– Euskal Autonomia Erkidegoan eduki beharko dute egoitza fiskala, eta, hautatua izanez gero, salmentarako proposamenean adierazitako produktuez hornitzeko moduan egon beharko dute.

I.3 PRODUKTUAK

Proposamenetan biltzen diren produktuek modako diseinuarekin lotura duten kategorietakoak izan behar dute, besteren artean: zapiak, poltsak, bitxiak, kapelak, burukoak, gerrikoak, oinetakoak edo jantziak, baldin eta horien erakusketa prestatutako eremura egokitu badaiteke eta ez bada probagelarik erabili behar, ez baitago halakorik museoan.

Proposamenetako produktuek gutxienez hornikuntza komertziala berehala bermatu ahal izateko moduan egon behar dute eskuragarri.

Produktuek eskatzailearen jatorrizko diseinua izan behar dute. Dena dela, deialdi honetarako ez da beharrezkoa produktuen diseinua eskusiboa izatea,edo bide honetatik bakarrik erakutsi edo saltzea.

Deialdi honen helburua denez tokiko sortzaileen lan-lerroei komunikazio-aukera eta ikusgarritasuna ematea, asmoa ez da sortzaileek Cristóbal Balenciaga Museoari, bere irudiari edo bere markari lotutako produktuak garatzea, edo bertako edukietan inspiratutakoak izatea. Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da produktuen izaera modaren munduari lotuta egotea eta proposamenean aurkezten den produktu zehatzen hautaketa berau ikusgai jartzeko esleitutako espaziora egokitzea. Hortaz, eskatzaile bakoitzak erabakiko du bere lana ondoen ordezkatzeko duela eta erabili ahal izango duen espazioan ondoen egokitzen dela iruditzen zaion proposamen zehatza egitea.

I.4 ESPAZIOA


Eukal modari eskainitako erakustokia metro gutxi batzuetara dago museoko dendatik. 12 m linealeko espazio bat da, apalategiak bi mailatan dituen, beira tenplatuazko ateez babestuta, barrutik argituta eta bidez zainduta.

Denda-eremuaren oinplano nagusia 1:100 –“Euskal Moda” gunea (gorriz)

Eremu osoa errotulatu da, ondo identifikatzeko moduan, lau hizkuntzatan, eta hautatutako pertsonen, marken edo enpresen izenak eta webguneak adieraziko dira, modu homogeneoan irudikatuta.

Produktuen aurkezpena FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK egingo du horretarako prestatutako eremuan, bere irizpideen arabera eta multzo osoa erakargarria izateko moduan. Ez da eremu berezirik gordeko hautatutako pertsonentzat edo markentzat; aitzitik, multzo osoaren azken efektuari emango zaio lehentasuna.


Produktuen aurkezpenari dagokion erabakia apelaezina izango da.




Esquema

lineales

estantería:





I.5 PROPOSAMEN AURKEZPENA

Eskatzaile bakoitzak proposamen bakar bat egin dezake

Proposamen bakoitzean gutxienez artikulua bat eta gehienez hamar artikulua sartuko dira.

Proposamenak posta elektronikoki bidez aurkeztu behar dira 2019ko apirilaren 28a baino lehen, 23:59an gehienez, info@fbalenciaga.com helbidean, "esukal modaren espazioa" gaiarekin identifikatuta.

Proposamenak aurkezteko formatua pdf dokumentu batena izango da, eta bere pisuak ezingo ditu gainditu 5 MBak, eta honako atalak bilduko ditu:

- **Harremanetarako pertsonaren izena eta posta elektronikokoaren helbidea.**
- **Markaren eta/edo sortzailearen aurkezpen laburra.**
- **Tokiko Diseinuaren Eremurako aurkezten diren produktuen deskribapena, argazkien bitartez (gehienez produktuaren 3 argazki, hainbat ikuspegitatik aterata), eta gutxienez honako ezaugarri hauen zehaztapena: diseinuaren kontzeptua, materialak, funtzionaltasuna, neurriak eta jendaurreko salmenta prezioa (BEZa barne).**

Zehaztutako baldintza eta epe guztiak bete beharko dituzte eskatzaileek. Ez da onartuko osatu gabeko eskaerarik edo epe kanpo aurkeztutakorik.

Deialdi honetan eskaera bat aurkeztean, eskatzaileak adierazten du bertako baldintzak eta betebeharrak ulertu, onartu eta betetzen dituela.

FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK hautaketa irizpideak ondoen betetzen dituzten eta erakusketa eremura ondoen egokitzen diren artikulua indibidualen konbinazio bat edo, egoki baderitzo, proposamen osoak hautatuko ditu proposamenen artean.

Aurretik ez da mugarik definitu proposamen beraren barruan hauta litekeen produktu kopuruari dagokionez, ezta deialdiaren helburu den eremuan ordezkatu litezkeen eskatzaileen kopuruari dagokionez ere. Muga ezarriko da, jasotako proposamenen arabera eta eremura nola egokitzen diren kontuan hartuta.

Hautaketari dagokion erabakia apelaezina da.

I.6 DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKOAK

Eskatzaileei jakinarazten zaie beren proposamenetan jasotako datu pertsonalak eta, hautatua izanez gero, gerora FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOARI ematen zaizkionak (esate baterako, izen-abizenak, NAN zenbakia, telefono zenbakia eta posta elektronikoa) deialdi hau kudeatzeko, proposamenen hautaketa egiteko eta hautatutako

eskatzaileekiko harremana kudeatzeko helburuarekin tratatuko dituela erakundeak, hori guztia beren onspenaren oinarri juridikoarekin.

Testuinguru horretan, eskatzaileei jakinarazten zaie nahitaezkoa dela datu pertsonal horiek ematea, eta, horiek ematen ez badira edo okerreko datuak ematen badira, FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK ezingo dituela horien eskaerak aintzakotzat hartu.

Eskatzaileen datu pertsonalak eskaera baloratzeko eta parte-hartzea kudeatzeko behar-beharrezkoa den bitartean baino ez ditu gordeko FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK, eta lege betebeharrak betetzeko beharrezkoa den epe osagarrian.

Edonola ere, eskatzaileei jakinarazten zaie eskubidea dutela (i) FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOARI eskatzeko beren datu pertsonaletara sartzeko aukera, eta horiek zuzentzeko, kentzeko, horien tratamendua mugatzeko, horiek lekualdatu ahal izateko edo beren tratamenduari uko egiteko, idatzizko eskabidea eginez FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOARI, posta helbide honetan: FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA, Aldamar Parkea 6. zk. - 20808 Getaria (Gipuzkoa); eta (ii) erreklamazio bat aurkezteko Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren edo eskumena duen beste edozein Kontrol Agintaritzaren aurrean, bereziki ez bada gogobeteta gelditu, bere eskubideak egikaritzean.

Proposamenak aurkeztean, eskatzaileek berariaz onartzen dute (i) beren datu pertsonalak aurretik adierazitako moduan tratatzea; eta (ii) beren datuak Cristóbal Balenciaga Museoko dendaren ustiaketaren ardura duen (eta, hortaz, hautatuko pertsonak eta marken hornitutako produktuen salmentaren ardura duen) enpresaren/erakundearen esku uztea, funtzio hori ez duenean FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK zuzenean betetzen.

Oinarri hauen inguruan sortutako edozein zalantza argitu liteke, idatziz mezu elektronikoko bidez denda@crislobalbalenciagamuseoa.com helbidera edo telefonoz museoko 943004777 zenbakira - dendara deituta.

I.7 PROPOSAMENEN HAUTAKETA

Hautaketan ondoko alderdiok balioetsiko dira:

- Diseinuaren ideia
- Iraunkortasun-irizpideak, produktuan/produktuetan eta enbalajeen barne hartutakoak
- Produktuaren/produktuen negozio-bideragarritasunaren potentziala
- Proposamenaren egokitasuna "Euskal Moda" gune osoaren barruan

FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAREN taldeak egingo du hautaketa..

FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK beretzat gordetzen du deialdi hau hutsik deklaratzeko eskubidea behar adina kalitate-maila betetzen duten nahikoa proposamen ez dagoela irizten badio erakusketa-proiekturako eta eskaini nahi den espaziorako.

Hautaketa-prozesuan, Cristóbal Balenciaga Museoak beretzat gordetzen du proposamen baten barruan produktuen lagin fisikoak eskatzeko eskubidea.

Aurretiko hautaketa 2019ko maiatzaren 10etik aurrera jakinaraziko zaie parte hartzaileei, posta elektronikoko bidez. Une horretatik aurrera, eta 7 eguneko epean, hautatuek deialdi honetako II. atalean eskatzen diren betebeharrak bete beharko dituzte.

Hautatutako pertsonak edo markek onartu egin beharko dituzte deialdiaren baldintzak, jakin gabe hautatutako beste proposamen zein diren edo bere produktua eremuaren barruan nola erakutsiko den.

Baldintzak onartu ondoren, hautatutako pertsonak eta markek ezingo dituzte beren proposamenak kendu.

II. HAUTATUTAKO MARKA EDO PERTSONENTZAKO BALDINTZAK

II.1 PRODUKTUA KOMERTZIALIZATZEKO BALDINTZAK

Cristóbal Balenciaga Museoko denda arduratuko da ikusgai dauden produktuen stocka eta salmenta kudeatzeaz, eta haien gordailua eta salmenta-baldintzak 2. Eranskinean erantsitako ereduaren arabera formalizatuko dira hautatuak izan direnekin.

Cristóbal Balenciaga Museoko dendak %20ko komisioa jasoko du produktu bakoitzaren PSParen gainean, salmenta-komisio kontzeptuan, BEZ kanpo. Komisio hori lagatze-aldiaren amaieran likidatuko da.

Erakutsi eta saltzeko diren produktuez gain, eskatzaile bakoitzak produktu-unitate bat utziko du lagin gisa edo probatzeko. Unitate horiek ez dira ikusgai jarriko; horren ordez, Museoko dendak edukiko ditu bere babesean, hain zuzen ere eskatzen duten bezeroek probatu, gertutik ikusi edo ukitu ahal izateko. Cristóbal Balenciaga Museoko denda ez da ikusgai egon diren produktuen amaierako egoeraren erantzule izango, hondatuta egon baitaitezke izan duten erabileragatik.

Produktuak 6 hilabetez aldean egongo dira ikusgai; aldi hori amaitzean, produktuak, euskarriak eta soberako stocka kentzeari eta lortutako salmentak Cristóbal Balenciaga Museoko dendako arduradunekin likidatzeari ekingo diote eskatzaileek.

II.2 HEDAPENA

FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK hautatutako marka edo pertsonak prentsa-ohar bidez aurkeztuko ditu. Gainera, museoaren web orrian eta sare sozialetan hedaraziko da ekimena.

Hautatuek konpromisoa hartu behar dute ekimenaren hedapenean lankidetzan aritzeko eta proposamenean biltzen diren irudietatik edozeinen doako erabilera lagatzeko, Cristóbal Balenciaga Museoaren proiektuaren ondorioetarako.

Era berean, hitzeman behar dute parte hartuko dutela beren lana jendeari zabaltzeko jardueretako batean gutxienez (hitzaldia, tailerra), baldin eta Cristóbal Balenciaga Museoak antolatzen badu eta gutxienez hilabete bat lehenago jakinarazten badio.

II.3 BESTELAKO BETEBEHAR

Hautatuek eskatutako dokumentazioa aurkeztu behar dute, CRISTOBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK jartzen duen momento eta epe barruan.



Hautatuek konpromisoa hartzen dute gordailu-baldintzak eta baldintza ekonomikoak, Eranskinetan bildutakoak, Fundazioak jartzen duen epe barruan onartzeko eta sinatzeko, baita dagozkien produktuak, kontsignan entregatzeko.

Gerta daiteke hautatutakoaren produktuak kontuan ez hartzea FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAREN iritziaren arabera ez badituzte esperotako kalitate-maila, etikaren inguruko kontsiderazioak edo egokitzat jotzen diren lege-betekizunak betetzen.

II.4 JABETZA INDUSTRIALAREN EDOTA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK

Hautatutako eskatzaileek bermatu egin beharko dute beren produktuen erakusketak eta, hala badagokio, salmentak, xede horretarako FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK gaitutako espazioan, ez dutela urratzen hirugarrenen Jabetza Industrialaren edota Intelektualaren zeinahi eskubide edo bestelako zeinahi eskusibotasun-eskubide produktu horien banaketan edota salmentan, eta produktuek ez dutela inongo erreklamaziorik jaso beren diseinuari, aurkezpenari eta abar dagokienez. 11

Horrez gain, eta deialdi honetan adierazitakoarekin bat etorriz, FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK Cristóbal Balenciaga Museoko eremu komertzialean hautatuen eta haien produktuen elementu identifikagarriak landu eta kokatu ahal izateko, hautatuak izan diren eskatzaileek ondoko baimenak/eskubideak emango dizkiote FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOARI:

1. Hautatutako eskatzailearen izena erabiltzeko baimena bere produktuen erakustaldian zehar. Baimen hori doakoa izango da.
2. Hautatutako eskatzaileen izen komertziala, web orriaren helbidea eta beren titulartasuneko beste edozein elementu bereizgarri ustiatzeko lizentzia, ez eskusiboa, doakoa eta besterenezina, eta bere iraupena, kasu orotan, deialdi honetan ezarritako indarraldira eta eremu objektibora mugatuko da.
3. Ustiapen-lizentzia ez eskusiboa, doakoa eta besterenezina, proposamenean barne hartutako irudien eta bestelako zeinahi edukien gainean, beren produktuen ustiapenaren indarraldira denboran mugatua eta FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK deialdi honen xede den ekimena argitaratzeko eta hedatzeko erabili ahal izan dezan.

Dena dela, hautatutako bakoitza Jabetza Industrialaren edota Intelektualaren zeinahi erreklamazioren erantzule izango da, deialdi honekin eta FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK horretarako propio gaitutako espazioan beren produktuen erakusketarekin eta salmentarekin zerikusirik ez duten hirugarrenek planteatu ahal izango

dituztenena, eta erakunde honi indemnitzatu behar izango dizkio kontzeptu horiengatik zeinahi erreklamaziotik eratorritako kalte-galera guztiak.



1 ERANSKINA. / Hautatutako pertsona edo markek betetzeko BAKARRIK

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN EREDUA, KONTRATATZEKO DEBEKUEN ETA BATERAEZINTASUNEN PEAN ERORI EZ IZANARENA, ZERGA-BETEBEHARRAK ETA GIZARTE-SEGURANTZAREKIN DITUENAK EGUNEAN EDUKITZEARENA ETA JARDUERA EKONOMIKOA BURUTU AHAL IZATEARENA.

..... jaun/andreak, NAN/AIZ duenak, bere izenean edo enpresa ordezkatuz, IFZzk. duena,..... gisa

ADIERAZTEN DU:

I.- Sozietatea, dagozkion administratzaileak eta legezko ordezkarriak, baita sinatzailea ere, ez direla erori Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren –azaroaren 14ko3/2011 Errege Lege Dekretu bidez onetsitakoa– 60. artikuluan adierazitako debeku eta bateraezintasun bakar baten pean ere.

II.- Aipatutako pertsona fisikoak edo erakundeak indarrean dauden xedapenek inposatutako zerga-betebeharrak egunean dauzkala baita Gizarte Segurantzarekin dituenak ere, eta baldin baditu, bermatuta daudela.

III. Aipatutako pertsona fisikoa edo erakundea EJZren epigrafe batean eta BEZaren zentsuan alta emanda dagoela, proposamenean bildutako produktuen ekoizpen- eta salmenta-jarduerak burutu ahal izateko.

.....(e)n,.....koren(e)an.

2 ERANSKINA. Hautatutako pertsona edo markek betetzeko BAKARRIK

KONTRATUAREN EREDUA GORDAILUAN HARTUTAKO PRODUKTUAK SALTZEKO “EUSKAL MODA” GUNEAN CRISTOBAL BALENCIAGA MUSEOAN

Getarian, 2019ko _____aren _____ (e)an.

BILDUTA:

Alde batetik, _____jaun/andrea, NAN _____duena, _____ izenean eta hura ordezkatzuz. (helbidea: _____ eta IFK: _____), erakunde horretako Administratzaile-Gerente gisa.

Bestetik, _____jaun/andrea, NAN _____duena, _____ izenean eta _____hura _____ordezkatzuz (helbidea: _____etaIFK _____), _____gisa [pertsona fisikoa izanez gero, bere izenean].

ADIERAZTEN DUTE:

I. _____, Cristóbal Balenciaga Museoko Dendaren kudeatzen duen erakundea da (aurretik CBM DENDA)

II. _____ pertsona/erakundea dela, modako osagarrien diseinuan eta ekoizpenean diharduena eta Cristóbal Balenciaga Museoak “Tokiko Diseinua” gunean produktuak ikusgai jartzeko eta saltzeko egindako deialdiaren adjudikazioduna dela.

III. Kontratu honen helburua dela bi erakundeak Cristóbal Balenciaga Museoak bultzatutako ekimenaren esparruan lankidetzan aritzeko baldintzen esparru bat ezartzea.

ESTIPULAZIOAK:

Lehena.-Xedea

Kontratuaren xedea da _____(e)k hornitutako produktuak gordailutan saltzea “EUSKAL MODA” gunean, Cristóbal Balenciaga Museoan kokatutakoan eta _____(e)k kudeatutakoan.

Helburu horrekin, CBM DENDA erakundeak ondoko jarduerak egingo ditu

- _____ zerrendan barne hartutako ondoko produktuen stock bat jaso, mantendu eta kudeatuko du

Ondorio horietarako, _____ hornitzailetzat hartuko da CBM dendak egindako ondoko produktuen gordailu-salmentan:

Bigarrena.-Iraunaldia

Kontratu honen iraunaldia 2020ko urtarrilaren 7ra arte luzatzen da.

Hirugarrena.-Jarduna

Produktuen salmenta-zerbitzuaren dendako jarduna ondoko egutegi orientatibo honen arabera egingo da, museoen beharren arabera:

Uztaila eta abuztua: astelehenetik igandera, 11:00etatik 19:00etara

Iraila eta urria: asteartetik igandera, 11:00etatik 19:00etara

Azaroa eta abendua: larunbatak eta igandeak, 11:00etatik 4:30era

Laugarrena.-Stocka

_____ (e)k CBM denda hornituko du produktu bakoitzaren hasierako stock batez (lehen puntuan zehaztua).

Produktuen stocka adierazten den mailara iristen denean, ondoren CBM Dendak jakinaraziko dio _____ (r)ji stocka aste 1eko epean birjartzeko. Halakorik egingo ez balu, CBM dendak erakustokitik kendu ahal izango luke produktua, salmentarako stocka jaso artean.

(DESKRIBAPENA produktua / ESKABIDE-PUNTUA)

Bosgarrena. -Eragikera

CBM dendako langileek bere Kudeaketa sisteman emango diote alta _____ (r)en jabetzako produktuen eta enbalajeen stock eskuragarriari eta ekingo diote produktuaren berri jakin nahi duen publikoari arreta emateari.

Horretarako, CBM Dendako langileek stockaren produktu-unitate bat erabili ahal izango dute lagin gisa edo probatzeko, eta ez dira produktuen amaierako egoeraren erantzule izango.

Salmenta bat egitean, CBM dendako langileek erregistratu egingo dute, eta _____ (e)k markatutako PSPan ordaintzeari ekingo diote (seigarren puntuan zehazten da PSP).



Ondoren, CBM dendako langileek bezeroari entregatuko diote produktua, _____(r)engandik jasotako bere jatorrizko enbalajea erabiliz.

Hilabete bakoitzaren amaieran, gordailu-aldian zehar, CBM Dendak jakinaraziko dio _____ (r)i zein den egindako salmenten guztizkoa eta azken stock-maila.

15 egunetako gehienezko epean _____(e)k aldi horretan egindako salmentei dagozkien produktuak fakturatzeari ekingo dio.

Gordailu-aldia amaitzean, eta dagozkion likidazioak egin ondoren, _____ (e)k saldu ez den stocka erretiratzeari ekingo dio.

Seigarrena.- Jabetza Industrialaren edota Intelektualaren Eskubideak

[...](e)k CBM Dendari bermatzen dio kontratu honen arabera bere produktuen erakusketak eta salmentak ez dutela urratuko hirugarrenen Jabetza Industrialaren edota Intelektualaren zeinahi eskubide edo bestelako zeinahi eskusibotasun-eskubide produktu horien banaketan edota salmentan, eta produktuek ez dutela inongo erreklamaziorik jaso beren diseinuari, aurkezpenari eta abar dagokienez.

Dena dela, [...] Jabetza Industrialaren edota Intelektualaren zeinahi erreklamazioren erantzule izango da, kontratu honekin eta CBM Dendaren aldetik bere produktuen erakusketarekin eta salmentarekin zerikusirik ez duten hirugarrenek planteatu ahal izango dituztenena, eta erakunde honi indemnitzatu behar izango dizkio kontzeptu horiengatik zeinahi erreklamaziotik eratorritako kalte-galera guztiak.

Zazpigarrena.- Prezioa, likidazioa eta ordainketa

Gordailuan hartutako produktuak ondoko PSPan (BEZ barne) salduko dira